

# Pentsioak babesteko ezinbestekoa da mobilizazioa

Azterketa Bulegoa

2019ko azaroa



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## AURKIBIDEA

Aurrekariak .....	3
Gaurko egoera .....	5
Ondorio eta proposamenak.....	7

### 1. AURREKARIAK

Pentsio sistema etengabeko murrizketa prozesuan dago, hiru bidetatik: pentsio berrien murrizketa, erretiratzeko adinaren atzerapena eta pentsiodunen erosteko ahalmenaren galera. Hamarraldi honetan dagoeneko hiru erreforma ezarri dira (2011n eta 2013an bi), guztiak ere antisozialak. Murrizketa hauek Toledoko Itunaren eta “elkarrizketa soziala”ren eremuetatik abiatu dira.

2010eko urtarrilean Zapateroren gobernuak pentsio sistemaren erreformarako proposamena plazaratu zuen. Haren arabera erretiratzeko adina mailaka 65 urtetik 67raino atzeratuko zen eta pentsioak jaitsiarazteko beste neurri larri batzuk erabakiko ziren. Urtebete geroago CCOO, UGT, CEOE eta gobernuak berak Akordio Sozial eta Ekonomikoa sinatu zuten, eta hau goitik behera bat zetorren pentsioen arloan Zapateroren hasierako proposamen harekin. Sindikatu haiek ontzat eman zuten urtebete lehenago gainditu ezinako “lerro gorria” omen zena.

Beraz, 2011ko erreformak pentsioa jasotzeko aukera eragotzi egin zuen (adina bi urtez atzeratu eta kotizazio epealdiaren inguruan eskakizun gogorragoak ezarriz), baita pentsio berrien zenbatekoa murriztu ere (oinarri arautzailea kalkulatzeko urte kopurua gehituz, kotizatutako urteen arabera pentsioa jaitsiz eta kotizatu gabeko aldiak areago zigortuz).

2013ko martxoaren 15ean Rajoyren gobernuak argitaratu zuen Errege Lege-Dekretuak aldatu egin zituen erretiro aurreratuen eta partzialaren arauak. Bietarako aukera eragotzi egin zuen: aukera izateko adina atzeratu eta eskakizun gogorragoak ezarri (eskatzen diren kotizazio aldiak luzatu eta erretiro aurreratuan aplikatzen diren koefiziente murriztaileak gehitu ziren).

2013 amaieran gobernu horrek berak beste erreforma bat ezarri zuen pentsiodun guztiei eragiteko asmoz:

- Dagoeneko pentsiodun direnei- Erreformak pentsioak eguneratzeko indize berri bat ezarri zuen, eta ordurarte zegoen erosteko ahalmena mantentzeko bermea kendu zuen. Hortik aurrera KPI adinako igoera ez da ziurtatzen eta indize berri bat sortzen dute, Gizarte Segurantzaren finantza-egoera aintzat hartu behar duena; indize honek tarte teoriko bat izango du: gutxienez %0,25, eta gehienez KPIren urteko igoera gehi %0,25. Indize berri hau 2014an ezarri zenetik urtero minimoa aplikatu da, hots, %0,25. Datozen urteetan ere portzentaje horixe aplikatu nahi dute; ondorioz, erosteko ahalmenaren etengabeko gainbehera eta pentsiodunen pobretzea dakarren sistema bilakatu da.

- Etorkizuneko pentsiodunei- 2019tik aurrera “Iraunkortasun Faktorea” ezarriko da. Figura hau 2011ko Akordioan sartu zen (Zapateroren erreforma), eta honakoa zioen hitzez hitz: *“Sistamarako ekarpenen eta harengandik espero diren prestazioen artean proportzionaltasuna mantentzeko eta beren iraunkortasuna bermatzeko 2027tik aurrera sistemaren parametro nagusiak berrikusi egingo dira, honen arabera: 67 urterekin berrikuspena egiten den urteko dagoen bizi-itxaropenaren eta 2027an 67 urterekin dagoen bizi-itxaropenaren arteko aldea. Berrikuspen horiek bost urtean behin egingo dira, hartara baliatuko direlarik erakunde ofizialek egindako aurreikuspenak.”* Hots, iraunkortasun faktorea, propio oso nahasia den testu honekin pentsioak etengabe doitzeko tresna da, eta erabateko eskua ematen zuen erretiro adina areago atzeratzeko, pentsio berriak murrizteko eta zahar-sarien erosteko ahalmenaren galera ezartzeko. Iraunkortasun faktoreari buruzko estimazioek diote pentsioetan eragingo duten murrizketa gutxienez %20koa izango dela 2050erako. Beraz, egungo egoera txarra izanik, etorkizuna are okerragoa izango da.

2011ko eta 2013ko erreformek murrizketa larri eta oso gogorrek zekartzaten. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen dugun sindikatuok eta gizarte-erakundeok orduan murrizte-politika hauek arbuiatu genituen, hainbat mobilizazio antolatuz. Esaterako, greba orokorra deitu genuen 2011ko pentsioen erreformaren aurka. Greba hau egin zen egunean bertan eman zen Akordio Sozial eta Ekonomikoaren berri, zeina Zapaterok, CCOOk, UGTk eta CEOEk sinatu zuten. 2013an beste greba orokor bat deitu genuen, besteak beste pentsioak areago murrizteko asmoaren aurka eta, batik bat, Iraunkortasun Faktorea salatzeke.

2018ko urtarrilaren 15ean pentsionisten mugimenduak astelehenero elkartaratzek deitzea erabakitzen du. Parte-hartze ugariak hiriburuetan deialdiak egitera eramaten die, Bilbon ospatutakoak Estatu Espainiarrean egindakoetatik jendetsuenak izatera heltzen dira 100.000 pertsonen parte-hartu zutelarik. Honek pentsionisten mugimendu antolatu baten sortzea eragiten du, erosteko ahalmenaren murrizketaz gain pentsio minimoa 1.080 eurokoa izateko aldarrikapena beregain hartuz.

EAEgoko eta Nafarroako Legebiltzarrean Herri Ekimne Legegile bate aurkeztu zuten pentsioak 1.080 eurotararte konplementatzeko eskaerarekin. ELAk sinadura bilketan parte-hartu zuen, eta azkenik, HEL atzera bota zuten.

Urte bereko apirilean, EAJk gizartearen eta mobilizazioen aldarria dela eta Espainiako aurrekontuei baietza ematen die pentsioen gaian beraien esanetan “oso garrantzitsua” den akordioa baten truke; 2018an eta 2019an erosteko ahalmena mantentzea, alarguntza pentsioa lau puntutan igotzea eta iraunkortasun faktorea 2013ra atzeratzea zen horren edukia. Akordioa oso garrantzitsua zela beraiei bakarrik iruditu zitzaie, pentsionisten mugimenduak eta eragile sindikal eta sozial ezberdinek akordioa itxura ematea eta hurrengo urteetan murrizketekin jarraitzeko modua zela salatu zuten, kalean egotea eta mobilizatzea inoiz baino garrantzitsuagoak zirela ulertuz.

## 2. GAURKO EGOERA

### 2.1 Hego Euskal Herriko biztanleen %24,2ak pentsio bat jasotzen du

Biztanleriaren pobretze orokorra ari da gertatzen, zehazki adinekoena (Hego Euskal Herrian 682.321 pentsiodun daude, biztanleriaren %24,2, eta portzentaje hau hazten ari da). Azken urteetan etengabe erosteko ahalmena galdu dute.

### **PENSIODUNAK / BIZTANLEEKIKO. HEGO EUSKAL HERRIA. 2018**

	PENTSIODUNAK	BIZTANLERIA	% PENTSIODUNAK / BIZTANLERIA
EAE	548.132	2.175.819	25,2
NAFARROA	134.089	643.234	20,8
HEGO EUSKAL HERRIA	682.221	2.819.053	24,2

*Iturria: Gizarte Segurantzaren eta INEren datuekin osatutako informazioa.*

ELAk proposatzen du taxuzko eztabaida egitea aberastasunaren banaketari buruz. Hau ez da debate teknikoa, politikoa baizik. Kontua da adinekoek eskubidea ote duten merezi duen bizitza izateko pentsioa jasotzeko. ELAren ustez biztanleriarekiko adinekoen portzentajea hazten bada pentsioetara bideratzen den aberastasun zatia ere handiagoa izan behar da. Badira horretarako alternatibak.

## 2.2 Pentsioen zenbatekoa txikia da, batez ere emakumeen kasuan

Pentsioen maila ez da nahikoa. Funtsezko eztabaida da pertsona horiei zer nolako diru-sarrerara maila bermatu behar zaien, eta hori nola finantzatu:

- EAEko batez besteko pentsioaren zenbatekoa 2018an, 1.173 euro da. Nafarroan, berriz, 1.086 euro. Beraz, batez besteko pentsioa urria da.
- Pentsio motaren arabera datuak analizatuz gero, ikusiko da alarguntasun pentsioa batez besteko zahar-sariak baino askoz txikiagoa dela (796 euro EAEn eta 723 euro Nafarroan). EAEn 1.347 euro eta Nafarroan 1.236 eruokoa izanik.
- Emakumeek gizonek baino pentsio askoz txikiagoak dituzte. EAEn emakumeek batez beste 869 euroko zahar-saria jasotzen dute, eta gizonek, 1.491 eurokoa. Nafarroan, aldiz, emakumeek batez beste 813 euroko pentsioa dute eta gizonek, 1.356 eurokoa.
- Emakumeen egoera larria da, eta ez soilik alarguntasun pentsioetan. Emakumeen batez besteko erretiro-pentsioa EAEn 934 eurokoa besterik ez da, eta Nafarroan, 888 eurokoa, enpleguan lehen eta orain pairatu duten diskriminazioaren ondorioz.
- Adinekoek mendetasun egoerak sarriago jasaten dituzte. Egoera hauek ez dira benetan aintzat hartzen, eta ez daukate sistema publiko, unibertsal eta doako baten estaldurarik; horri erantsiz gero pentsio urriak kolektibo honetako pertsona asko egoera gero eta zaurgarriagoetan gertatzen dira.

### **BATEZ BESTEKO PENTSIAREN ZENBATEKOA. 2018. EUROTAN**

EAE	1.173
NAFARROA	1.086

*Iturria: Gizarte Segurantza.*

**EMAKUME ETA GIZONEN BATEZ BESTEKO PENTSIAREN ZENBATEKOA. EAE 2018. EUROTAN**

	<b>GIZONAK</b>	<b>EMAKUMEAK</b>
<b>GUZTIRA</b>	1.491	869
<b>ERRETIROA</b>	1.592	934
<b>ALARGUNTASUNA</b>	616	723

*Iturria: Gizarte Segurantzza.*


**EMAKUME ETA GIZONEN BATEZ BESTEKO PENTSIAREN ZENBATEKOA. NAFARROA 2018. EUROTAN**

	<b>GIZONAK</b>	<b>EMAKUMEAK</b>
<b>GUZTIRA</b>	1.356	813
<b>ERRETIROA</b>	1.443	888
<b>ALARGUNTASUNA</b>	559	736

*Iturria: Gizarte Segurantzza.*

**2.3 Pentsioetara bideratzen den aberastasun zatia europar batez bestekoa baino txikiagoa da**

**PENTSIOTAK ORDAINTZEKO BPGaren %a**



*Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Gizarte Segurantzza, Eurostat, Eustat, eta Nafarroako Estatistika Institutuko datuak kontuan hartuta.*

2016an, europa mailako azken datuak, Hego Euskal Herrian guztira ordaindu ziren pentsioak 10.039 milioi euro izan ziren (8.223 milioi EAEn eta 1.816,2 Nafarroan), Gizarte Segurantzako Estatu-

Idazkaritzaren arabera. Beraz, pentsioetara BPGaren %11,1 bideratzen da (%9,4 Nafarroan eta %11,6 EAEn).

Lehen ondorioa: Biztanleriaren %24,2ari aberastasunaren %11,1 baino ez zaio iristen.

Bigarren ondorioa: Pentsioak ordaintzeko aberastasunaren zatia europar batez besteko mailatik oso urrun dago. Eurostat Europar Batasuneko estatistika bulegoaren arabera 2014an (datuak ditugun azken urtea) pentsioak batez beste BPGaren %13 ziren Europar Batasunean, eta %13,6 eurogunean. Eurogunean dagoen maialara iristeko, HEHan urtean 2.230 milioi euro gehiago bideratu beharko ziren pentsioak ordaintzeko (1.416 EAEn eta 814 milioi Nafarroan).

### 3. ONDORIO ETA PROPOSAMENAK

Aberastasunaren banaketari buruz benetako eztabaida ireki behar da, eta pentsioei dagokienez lehenik erabaki zein diru-sarrera maila bermatu nahi diegun pentsiodunei. Horretarako egin beharrekoak:

1. Toledoko Ituna eta beronen ikusmoldea ukatu; baita ere, ondorioz, haretatik edota sasi-elkarrizketa sozialetik erator daitekeen erreforma eta murrizketa oro. Pentsiodunen pobretzeak arduradun politiko argiak ditu: erreformak hitzartu eta erabakitzen dituztenak; estatuko aurrekontuak bozkatzen dituztenak; Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak onartzen dituztenak, horietan finkatzen baitira DSBE edota Errenta Bermatua.

2. 2011 eta 2013an ezarritako murrizketak bertan behera utzi (pentsio berrien zenbatekoa, erretiro adinaren atzerapena, pentsioen eguneratzea, iraunkortasun faktorea kentzea...).

3. Kalitatezko enplegua sortu eta soldatak KPlz gaindi igo. Lan eta negoziozko kolektiboko erreformek enpresarioei botere handiagoa eman diete, eta bide batez prekaritatea hedatzea eragin. Soldata kaskarren ondorioz kotizazio sozialak urriak dira. Alderantziz, kalitatezko enplegu gehiago balego kotizazioak asko hobetuko liriateke. Herri-administrazioek zuzenean eragiten dute kotizazio bidezko diru-sarreraren jaitsiera, arlo publikoan erosteko ahalmena murriztuz eta azpikontratazioak eta beheranzko lizitazioak ugalduz.

4. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako pobrezia- eta gizarte-bazterkeriaren aurkako HLEaren edukiak onartu, Legebiltzar biek aztera bota baitzuten hori eztabaidatzeko aukera.

5. Gutxieneko pentsioa 1.080 euroan finkatu; kopuru hau Europar Karta Sozialean ezarritako irizpideen arabera litzateke: Gutxieneko soldata batez besteko soldataren %60 izan beharko litzateke.

6. Pentsioak finantzatzeko iturri bakarra ezin dira kotizazioak izan. Superabita zegoenean pentsioen igoerarik ez zen proposatu. Alabaina, defizita dagoenean murriztu egin behar omen dira. Zerbitzu publikoak, gizarte-prestazioak, justizia, polizia, Errege Etxea... horiek denak zerga bidez finantzatzen dira, eta gauza bera egin behar da pentsioekin.

7. Pentsioetako gastua gehitu, zerga-politikaren erreformatuz eta iruzurrari jazarriz. Presio fiskalean Europar Batasuneko azken postuetan gaude (HEHn 8.000 milioi euro gutxiago biltzen da europar

batez besteko maila baino), eta puntan iruzur fiskalean. Halere, errenta altuen, kapitalen eta enpresen zergak jaitsi egin dituzte.

8. Enpresentzako hobariak kendu, enpleguan eragin positiborik ez duten transferentzia huts bihurtzen baitira.

9. Pentsio sistema publikoa indartu. Sistema pribatua ez da aukera egokia: hasteko, herritar gehienek ez dute aurrezteko aukerarik, eta soilik diru gehien duen gutxiengoarentzat litzateke; bigarrenik, sistema pribatuak gauza bakarra bermatzen du, berau kudeatzen duten finantza-erakundeen negozioa, baina ez gutxieneko prestazio edo errentagarritasun mailarik. Pentsio sistema pribaturako zerga-arintze maila zeharo mugatu beharko litzateke. Hau izan beharko litzateke lehentasunen segida: sistema publikoa, negozioazio kolektibo bidez ezarritako sistema osagarria eta, azkenik, sistema pribatua.

10. Sistema guztia Euskal Herrian erabaki. HEHn bizi diren pertsonen pentsioak bertan erabaki behar dira. Benetako erabaki-ahalmena behar da Gizarte Segurantzaren politikei buruz; ezin da onartu zatikako eta baldintzatutako transferentziarik. Zahar-sariak hobetu behar dira, batik bat txikiak, eta haien erosteko ahalmena bermatu Itun eta Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako irizpideen arabera (diru-sarrerak eta gastuak hemen gauzatzen dira; ez da nahikoa bulegoaren logoa aldatzea).

11. Bitartean, lehenago ere esan izan duguna berresten dugu: HEHko erakundeek diru-sarrera egokiak bermatu behar dizkiete gaurko eta etorkizuneko pentsiodunei, guztiei osatuz espainiar gobernuaren erabakiek eragindako sarreraren galera eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bermatuz.

ELAk uste du helburu hauek lortzeko ezinbestekoa dela mobilizazio soziala. Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartako kideak gara, eta hurrengo hilabeteetan egingo diren mobilizazio ezberdinetan parte-hartzeko deia egin dugu, zeinak urtarrileko bigarren hamabostaldian greba orokor batean amaituko diren. Mobilizazio hoietako bat azaroaren 16rako pentsionisten mugimenduak Hego Euskal Herriko lau hiribuetan deitutako manifestadiak lirateke. Hoietan aktiboki parte-hartzeko deialdia egiten dugu. Izan ere, merezi duen bizimodua bermatzen duten pentsioen aldeko borroka eginkizun kolektiboa baita, gaurko eta biharko pentsiodunena.





[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**